

Bilbon, 1995eko otsailaren 24an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Charritton, P.
 Davant, J.L.
 Diharce, X.
 Goenaga, P.
 Irigoien, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oihartzabal, B.
 Ondarra, P.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea
 Gorrotxategi, M., Onomastika batzorde idazkaria, akademi gaietan.

Bilbon, egoitzan, 1995eko otsailaren 24an, goizeko 10etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren lagunak han zirela. Ezin etorria M. Azkarate, J. San Martin eta P. Zabaletak adierazi dute.

Agiria

Urtarrileko agiria zenbait zuzenketa-rekin onartu da.

Gaietan hasi baino lehen, ongi etorri egin dio J. Haritschelharrek Patxi Goenaga euskaltzain berriari.

A. Irigoienek eskatu du A. Arejita urgazleari goresmenak bidaltzea, doktorego tesia irakurri berri baitu. Hala egingo da.

Martxoko batzarra eta IX. Barne Jardunaldiak

J.L. Lizundia idazkariordeak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako ahal-dunak erakunde horren osoko bilkurara joan behar zuenez, lehen puntura pasa da Legutianoko Larrabeen egingo diren hileko batzarraren eta IX. Barne Jardunaldien egutegia (martxoaren 30 eta 31an eta apirilaren 1ean). Orobat aipatu du Lizundia jaunak apirilaren 1eko eguerdian Aramaion izango den ageriko batzarra, Gabriel Jauregi idazlearen mendeurrena ospatzeko.

Euskara Batuko batzordea

Urtarrileko batzarrean erabaki gabe gelditu zen “*Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera*” deritzan txostena aurkeztu du P. Salaburu batzorde idazkariak, moldaketa berrian. A. Irigoienek esan du *hori dela eta* esapidean eta enklitikoaren denez, *-ta* idaztea gomendatu beharko litzatekeela. I. Sarasolarentzat, berriz, enklitikotasunak ez dakar *-ta* idaztea, eta euskara batuaren idatz-ohitura gogorarazi du. J.M. Satrustegiren iritziz, ez da komeni idazkera zailtzea. P. Goenagak laukiko testua aldatzea proposatu du, argitasunaren amoreagatik. A. Irigoienek eskatu du gaia sakonago ikertzea. Testua ontzat hartu da, A. Irigoienekin kontrako botoarekin.

“Aditzoin bereziak” izeneko txostena B. Oihartzabalek azaldu du. *Eutsi eta iritzi* aditzen formak eztabaidatu dira, X. Kintanak *euts* eta *iritz* proposatu baititu aditzoin gisa. Hau izan da erabakia: *euts* nahiz *eutsi*, *iritz* zein *iritzi*, biak izango dira aditzoinak, eta *itxi* izango da forma bakarra.

“Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea” deritzan txostena aztertu da gero. P. Salaburuk egin du azalpena. Testua onetsi da, baina *deiez* eta (*zenbait*) gaiez bezalako esamoldeak izango dira forma aratuak. A. Irigoienek esan du bat datorrela txostenarekin, nahiz puntu honi buruz ere askatasuna ematearen aldeko izan.

“Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen eta Frantziako Errepublikako departamenduen eta herrialdeen izenak” deritzan txostena eta “Grezieratik hitzen letraldaketa-taula” izenekoak aurkeztu dira, Onomastika batzordeak bere azken bilkuran onartu ondoren. Bilkura horretan A. Irigoienekin txostena. “Grekozko alfabetoa eta bere transkripzioa kharaktere latinoetan” zeritzana, aztertu zen orobat. Dena den, Irigoien proposaturiko idazkera kasu berezi batzuetan baizik ez zen onartu.

I. Sarasola kexu agertu da, orain arteko erabakizun guztiak Euskara Batuko batzordetik pasa baitira, molde bera harturik eta zenbaki batekin. Bestalde, esan du txostenean ageri diren izen arrunt batzuetaz Euskaltzaindiak ez duela deus ere erabaki, euskara baturako egokitasunaren aldetik, *irla*, adibidez. E. Knörr Onomastika batzordeburuak erantzun du elkarlana behar dela eta Onomastikako kide bat Euskara Batuko batzordean izan dadin eskatu du, gai hauek tratatzen diren orotatik iritzi-emaile, eta X. Kintana batzordekidea proposatu du horretako. Eskaera mahai gainean gelditu da, baina bi batzordeek, idatziz etorriko diren oharraurrean izaki, berrikeria dute testu hau eta martxoko batzarrean erabaki-proposamena ekarriko.

Batzordeburuen izendapena

Jean Haritschelharrek batzordeburu izateko Zuzendaritzak proposatu di-tuen izenak irakurri ditu. P. Altunak esan du bera gehiegitan ageri dela. A. Irigoienek oroitarazi du lehen ere inork bi kargu baino gehiago hartzearen aur-

ka mintzatu zela, eta gaia mahai gainean uztea eskatu du. Horrela erabaki da. Euskaltzainek martxoaren 20a baino lehen bidali ahalko dituzte proposamenak.

Eskuartekoak eta azken ordukoak

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Comptos Ganbarak Euskaltzaindiari buruz egindako txostenak egun iritsi behar zuen, baina bi erakunde horietako arduradunek goizean gaztigatu dute asmoa ezin izan dela bete. Hortaz, testua hurrengo egunetan igorriko zaie euskaltzain guztiei.

J.A. Arana liburuzainak Euskaltzaindiari eman zaizkion zenbait artxiboren gainean txosten bat aurkeztu du. O. Apraiz, J. Bilbao, G. Aresti, L. Ibarra eta J. Etxaideren ondareak dira.

E. Knörrek Gasteizen berriki ezagutarazi den manifestua, lagun askok sinatu dutena, azaldu du. Manifestua euskararen inguruan sortu den giro nahasiak eragin du. Tolerantzia eskatzen du eta hizkuntza politikarako proposamen batzuk egiten ditu. Gai bera Jagon Sailak erabiliko du martxoaren 7ko bilkuran.

Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen berriaren testua, otsailaren 8an sinatu zena, banatu da euskaltzainen artean. Euskaltzainburuak adierazi du Bordeleko Unibertsitatea prest dagokeela antzeko beste hitzarmen bat sinatzeko.

J.A. Ardanza lehendakariari Zuzendaritzak otsailaren 7an egindako ikus-taldiaren berri eman du J. Haritschelharrek. Lehendakaritzaren egoitzako el-karrizketa luze eta atseginean M.K. Garmendia Kultur sailburua ere izan zen.

Herri Aginteeekiko hitzarmenaren testu zirriborroa, Euskaltzaindira aurreko astean igorri dena, egungo batzarrean banatu zaie euskaltzainei, martxoaren 20a baino lehen nork bere iritzia eman dezan. J.A. Aranak gogorarazi du testu berri-rako Euskaltzaindiak egin zituen iradokizunak ez direla kontuan hartu. P. Charritonek esan du Espainia eta Frantziako gobernuak, Baionan, martxoaren 10ean, sinatuko duten abenikoan Euskaltzaindia sartzeko aukera ona dela. P. Altunaren ustez, M.K. Garmendia Kultur sailburuarekin egin liteke bilkura bat, Akademiaren kezka larriez mintzatzeko. J.A. Aranak aipatu du papererian gal-tzen den denbora. Aldiz, esan du, Madrilgo gobernuak iaz baino diru gehiago emango dio Euskaltzaindiari, *Oroit-Idazkia* askietsirik.

Eusko Jaurilaritzak bidalitako gutuna irakurri da. Laster sortuko den Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako Aholku batzorderako Euskaltzaindiaren kide eskatu du. E. Knörr idazkaria izendatu da.

M. Dolores Etxeberria luzaidarra, J.M. Satrustegiren gelaria, otsailaren 11 an hil zela, aditzera eman du Euskaltzainburuak eta guztien izenean dolumina agertu dio Satrustegi jaunari.

P. Ondarra euskaltzain osoak eta J. Apezetxea urgazleak paratu dute Joaquín Lizarragaren *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak* deritzan liburuaren

edizioa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako eta Kultur Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz. Ale bat Euskaltzaindiari eskaini diote egileek, erakundearen 75. urtemugakari. J. Haritschelharrek bihotzez eskertu du oparia.

1994ko batzarretan izandako euskaltzain osoen eta urgazleen zerrenda banatu da halaber egungo batzarrean.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria